


# OTXARKOAGARAKO ERABILERA GESTIOEN INKESTAREN EMAITZAK

2020ko Azaroa



<b>SARRERA</b>	<b>3</b>
TESTUINGURUA	3
INKESTA	3
<b>EMAITZAK</b>	<b>4</b>
PROFIL-GALDERAK	4
BEHAR-ETA ORDAINTZEKO PRESTUTASUNAREN KONPARAKETA	5
TRASTELEKUA	7
TXOKOA	8
BIZIKLETAK GORDETZEKO ESPAZIOA	9
LANERAKO ESPAZIOA	10
BALKOI EDO TERRAZA	11
ETXEBIZITZA HANDIPENA	12
<b>ONDORIOAK</b>	<b>13</b>

Inkesta hau Hiritik At eta Createllik garatu dute  
Pauzoa proiekturako, BAI+D+i Programaren baitan.



Informe honen idazleak honako hauek izan dira:  
Ane Elizegi Agirre, arkitekta, Createlli

## SARRERA

Inkesta hau «Hirien regenerazio osorako proiektu berritzaileak» garatzeko laguntzen baitan gauzatu da. Helburua PCTI Euskadi 2020rako Habitat Urbano-n zerrendatutako aukerei ekarpenak egitea da, BAI+D+i programaren barruan. Hain zuzen ere, galdetegi hau BAI+D+i programan dagoen **P[auzoa]** proiektuen kontestuan garatu da, Otxarkoaga auzo Bilbotarrean.

Galdetegi honen helburua, Otxarkoaga auzorako eginiko hainbat proposamenen harira bizilagunen lehentasunak ulertzea da, eta zein baldintza, kudeaketa, edo inbertsio egiteko prest leudekeen proposamen hauek aurrera eramateko.

## TESTUINGURUA

RepensarOtxar osatzen duten **P[auzoa]** zein **Otxar «Active Frontage»** proiektuak auzoan eginiko azterlan sozio-urbanistiko partehartu batetik abiatu ziren, auzoaren egungo behar sozial eta urbanistikoak ulertzeko. Azterlan partehartu horretatik abiatuta, UPV-EHU-ko ikasleek eta P[auzoa] proiektuko taldeak hainbat proposamen garatu zituzten, Urriak 9-an eginiko parte-hartze jardunaldi batean bizilagunei aurkeztu zitzaizkienak, ondoren horien inguruko iritziak eta ekarpenak jasotzeko. Fase honi paraleloki, inkesta hau garatu da, zeinak bizilagunen beharren arteko lehentasunak ulertzea duen helburu. Horrez gain, espazio hauek gauzatzeko orduan, zein baldintza eta kudeaketa nahiago izango litzuketan, eta zein diru kopuru inbertitzeko prest egongo liratekeen aukera bakoitzaren erabilera posible egiteagatik.

## INKESTA

Inkesta Createlli-ren plataforma digitalaren bidez gauzatu da eta 2020-ko Urriaren 9tik Azaroaren 8-ra egon da irekita. Guztira **63 pertsonak hartu dute parte**.


Inkestak bi galdera mota zituen, profilekoak eta erabilerari lotuak:

Anonimoa izan arren, estatistikari loturiko datu batzuk galdetu ziren profileko galderetan, hala nola generoa, adina, bizilagunaren auzoa eta bizikidetzaren unitatearen errenta tarteak.

Ondoren, erabilerari lotutako galderak, 6 gaietan banaturik: trastelekuak, txokoak, bizikletak uzteko espazioak, lanerako espazioa, balkoi edo terrazak eta etxebizitza handipena. Gai bakoitzari loturiko galderak parte-hartzaileak gai hortarako beharra edo interesa zuela erantzuten bazuen soilik agertzen ziren. Jarraian, emaitzak aurkeztuko dira.

## EMAITZAK

### PROFIL-GALDERAK



**Genero** aldetik gehiago izan dira emakumeak (%62) parte hartu duten gizonak baino (%38).

Partehartzaileen **adin tarteari** begiratuta 26-35 eta 36-45 artekoak dira inkesta gehien erantzun dutenak, tarte bakoitzak partaidetzaren %31 izan duelarik. 46-55 (%16) eta 56-65 urte (%16) artekoen artean partehartzea apalagoa izan da. Populazioaren tarte gazteenean eta helduenean egon da partehartze baxuena, ohikoa denez. Zaila da gazteak prozesu hauetan partehartzera bultzatzea eta helduenean plataforma digitalekin zailtasunak izan ditzakete. Gauzak horrela, 13-25 adin tartekoak partehartzaile guztien %5<sup>a</sup> izan dira, eta 65-75 -koena %2-a.

Partehartzaileen jatorrizko **auzoa** oso banatuta egon da. Aixeona Etxetaldea-tik parte hartu du %16ak, Txotetatik %13ak, Ugarte-tik %11k, eta Larratundutik %8-k.

Bizikidetzaren **errenta tartea** datu esanguratsua zen inkesta honetan, auzoan eskuhartze desberdinak egiteko dagoen benetako interesa baina bideragarritasun ekonomikoa ere aztertuko dugulako, eta beraz biztanleak proposamen bat edo beste gauzatzean zenbat diru gastatzeko prest leudekeen ere bai. Aldez aurretiko joera hau auzoko bizikidetzaren errentaren batz-bestekoarekin alderatuta bizilagunak egitera prest leudekeen esfortzu ekonomiko txiki edo handiagoaren pista bat emango digu. Partehartzaileen heren batek, %32-ak, 12.450€ azpiko errenta dauka. Portzentai txikiago batean baina parekatuak, %21ean eta %23-an, hurrenez hurren, 12.450€-18.000€ arteko errenta dutenak eta 18.000€-25.000€ -ko errenta dutenak. %14-a dira 25.000€-35.200€-ko bizikidetzaren errenta tartean dabiltzanak eta portzentai txikiena, %11-a, 35.200€-tik gorako errenta dutenena da.


## BEHARREN ETA ORDAINTZEKO PRESTUTASUAREN KONPARAKETA



Partehartzaileen **%65ak trasteleku** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %71-k bakarrik ordainduko luke trasteleku batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%46ak**.




Partehartzaileen **%36ak txoko** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %81-k bakarrik ordainduko luke txoko batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%29ak**.




Partehartzaileen **%32ak bizikletak gordetzeko espazio** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %56-k bakarrik ordainduko luke bizikletak gordetzeko espazio batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%18ak**.



Partehartzaileen **%21ak lanerako espazio** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %67-k bakarrik ordainduko luke lanerako espazio batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%14ak**.



Partehartzaileen **%56ak balkoi edo terraza baten beharra dauka** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, **%65-k** bakarrik ordainduko luke balkoi edo terraza batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%36ak**.




Partehartzaileen **%24ak** dauka etxebizitza handitzeko beharra.

	Beharra du	Ordaintzeko prest
Trastelekuak	%65	%46
Balkoi-terraza	%56	%36
Txokoa	%36	%29
Bizikletak gordetzeko espazioa	%32	%18
Etxebizitza handipena	%24	-
Lanerako espazioa	%21	%14

Beraz, partaideen erantzunen arabera ondorioztatu dezakegu **beharrik handiena trastelekuena** (%65) eta **balkoi-terrazena** (%56) dela. Partaideen ia erdia, **%46a**, legoke **trasteleku batengatik ordaintzeko prest**, eta **%36a** legoke balkoi-terraza batengatik ordaintzeko prest.

Errepresentazio maila txikiago batean, **%36ak** dauka **txoko baten beharra**, eta partaide guztien %29a legoke **txoko batengatik ordaintzeko prest**.

## TRASTELEKUA




Partehartzaileen **%65ak trasteleku** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %71-k bakarrik ordainduko luke trasteleku batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%46ak**.

Trastelekua ordaintzeko prest daudenen artean, %73ak alokairuan nahiko luke, eta %27ak jabetzan. **Alokairuan, %88-k 5€/ m2 baino gutxiago** ordaintzeko prest legoke hilean. Portzentai txikiago bat, %12, 10€/ m2-ra arte ordaintzeko prest legoke.

Trasteleku bat **jabetzan erosteko** prest leudekeen pertsonen **erdia 300-500/ m2 ordaintzeko prest legoke**. Heren batek, %33ak, 300 euro baina gutxiago ordainduko lituzke metro karratuko, eta %17ak 500-750/ m2.

%31 bakarrik legoke trastelekua partekatze prest: hauetatik gehiengoak (%58) familia eta lagunekin partekatuko luke, heren batek bizilagunekin eta gutxiengoa da %8 edozeinekin partekatuko lukeena.

## TXOKOA



Partehartzaileen **%36ak txoko** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %81-k bakarrik ordainduko luke txoko batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%29ak**. Txokoa beraz hirugarrena da biztanleen behar eta inbertsio ekonomiko prestutasunaren zerrendan.

Txokoen kasuan nabarmenki gailentzen da alokairu baldintza (%78) beste 15 bazkideekin partekaturiko jabetzarekiko (%22). Alokairuan hartuko luketenen bi herenek 50 euroz azpitik ordaintzeko prest leudeke egun bateko erabileragatik. Beste herena berriz 50 eta 100€ artean gastatzeko prest azaldu da. Txokoa jabetzan hartuko lukeen %22 horren guztiek, aldiz, 1000€ eta 2000€ artean ordainduko lukete beste 15 bazkiderekin elkarbanatutako txokoaren jabetzagatik.

Txoko bat behar luketen partehartzaileen artean %70a txokoa elkarbanatzeko prest legoke, eta norekin egingo lirateke bazkide? Gehiengoa familia eta lagunekin (%57), ia heren bat edozeinekin (%29) eta gutxiengo bat bizilagunekin (%14).



## BIZIKLETAK GORDETZEKO ESPAZIOA



Partehartzaileen **%32ak bizikletak gordetzeko espazio** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %56-k bakarrik ordainduko luke bizikletak gordetzeko espazio batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%18ak**.

Espazio honen beharra somatzen dutenen erdiak espazio hau itxi eta kolektiboa izan beharko litzatekela uste dute, hau da, erabiltzaileak bakarrik sar daitezkeena (%50). Esanguratsua da ere espazio hau itxi eta pribatua izan beharko litzatekeela uste dutenen portzentaia (%44). Gutxiengo batek uste du bizikletak uzteko espazioa irekia, estalia eta kolektiboa izan beharko litzatekela, (%6).

Prezioari buruz galdetuta, espazio espazio kolektibo itxi zein espazio ireki kolektiboaren alde egin dutenak hilean 5 euro azpitik ordaintzeko prest agertu dira aukera honen truk.

## LANERAKO ESPAZIOA




Partehartzaileen **%21ak lanerako espazio** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %67-k bakarrik ordainduko luke lanerako espazio batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%14ak**.

Lanerako espazio hau gurako luketenen artean %60ak alokairuan nahiko luke, eta hauen artean, heren batek 100 euro azpitik ordainduko luke hilean, eta bi herenek 100 eta 200 euro arteko hilabeteko kuota.

Jabetzan nahiago izango lukeen %40aren artean berriz, iritzia bateratua da: 10.000 euro azpitik ordainduko lukete espazioa erosteagatik.

Lanerako espazioa behar duen partaideen erdia bakarrik legoke halako espazio bat elkarbanatzeko prest (%50), eta hauen artean portzentai berdinean elkarbanatuko lukete familia edo lagunekin soilik (%50) zein edozeinekin (%50).

## BALKOI EDO TERRAZA



Partehartzaileen **%56ak balkoi edo terraza baten beharra dauka** baten beharra dauka, eta baiezkoa erantzun duten hauetatik, %65-k bakarrik ordainduko luke balkoi edo terraza batengatik, hau da, partehartzaile guztien **%36ak**.

Balkoi pribatu edota bizilagunekin elkarbanatutako balkoi batengatik ordaintzeko leudekeen prezioari buruz galdetuta, agerikoa da partaideek aurrekontu handiagoa izango luketela balkoi pribatu batean gastatzeko. Balkoi pribatu batengatik %58-ak 2000 eurotik gora ordainduko luke, baina, ez da partaideen artean inor prest agertu diru kopuru hori inbertitzeko bizilagunekin elkarbanatutako balkoi batengatik. Are gehiago, %73ak ez luke 1000 euro baina gehiago gastatuko.

## ETXEBIZITZA HANDITU



Partehartzaileen **%24ak dauka etxebizitza handitzeko beharra**. Partaideek diru kantitate antzekoak gastatuko lituzkete espazio existente baten handipenagatik zein logela bat gehiago lortzeko handipenagatik. Lehenaren kasuan, bi herenek 6000 euro azpitiko inbertsio bat egingo lukete, eta logela bat gehiago lortzeko kasuan berriz, %73-a 8000 euro azpitik gastatzeko prest egongo litzateke.

## ONDORIOAK

Partaideen erantzunen arabera ondorioztatu dezakegu **beharrik handiena trastelekuena** (%65) eta **balkoi-terrazena** (%56) dela. Partaideen ia erdia, **%46a**, legoke **trasteleku batengatik ordaintzeko** prest, eta **%36a** legoke balkoi-terrazza batengatik ordaintzeko prest.

Bizikletak gordetzeko espazio baten beharra txikiagoa da, %32ak besterik ez du somatzen, %24-ak etxebizitza handitzeko beharra dauka, eta **lanerako espazioa berriz**, %21-ko babesarekin, auzoan planteatutako **beharren artean txikiena** da partaideen erantzunen arabera.

Jabetza moten arabera, orokorrean **alokairua gailendu da jabetzarekiko**: %73-ko babesza izan du trastelekuen kasuan,%78 txokoarenean eta %60 lanerako espazioa bat erabiltzeko baldintzetan.

Orokorrean espazioak elkarbanatzeko iritzi desberdinak egon dira. %31k elkarbanatuko luke trasteleku bat, %70-ak txoko bat, %56-ak bizikleta gordetzeko espazio bat eta erdiak bakarrik lanerako espazio bat. Balkoi eta terrazen kasuan, partaideek inbertsioaren erdia baina gutxiago egiteko prest leudeke balkoi edo terraza elkarbanatu batengatik pribatu batekin alderatuta. Espazioak **elkarbanatzerako orduan familia edo lagunekin** elkarbanatuko lituzkete espazioak eta ez hainbeste bizilagunekin edo edozeinekin.

Espazio eta erabilera desberdinen erabileragatik inbertitzeko dauden diru kopurua asko aldatzen da kasu eta baldintza motaren arabera, baina ondorio orokor bezela esan dezakegu **planteaturiko inbertsio-tarteen artean txikienera jotzea** izan dela joera partaideen artean.